

HIRIGINTZA FITXA.- 3 SO. AGIRRE ETXEA
DEBA ALDEA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Debako hiri egitura eratzen duen elementua da, herriko plazetako bat izaki, bai kokapenagatik bai barne hartzen duen ekipamenduagatik.

Esparru barruko espazioak titularitate publikokoak dira.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 2.187 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : KOMUNITATEAREN EKIPAMENDUKO ZONA : LAKETZEKO ETA SOZIO-KULTURALA (11. ARTIKULUA: G.6).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Oraingo Hiri Antolaketako Arauen alderdia finkatuko dira.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Agirre etxea eta haren ingurumariak finkatzea.

Komunitate, kultur, museo eta gizarte erabilerak hartzeko beharrezkoak diren obren gauzapena ahalbidetzea.

Agirre etxea interes arkitektonikoko katalogoan mantentzea. Interes historiko-arkitektonikoko oinezkoentzako pasealekua (3 KII) hastea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Komunitatearen ekipamenduko sistema orokorra: kultur ekipamendua.

Kultur esparru bat eta haren ingurunea kalifikatzean, hala izendatutako kultur ondasunen eta horien ingurunearen babes erregimena errespetatu beharko da, eta erabilera baimenduek beti ere ondasun horiek mantenduko direla bermatu beharko dute.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Euskal Kultur Ondarearen Legeari jarraituko zaio.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri. Handituz gero, beheko solairuan izango da, eta proiektu arkitektoniko baten arabera. Hirigintza Araudiaren 115. artikuluari jarraiki arautuko da.

Eraikuntza. Eraikina eta haren ingurua finkatzea. Hirigintza Araudiaren 194. artikuluari jarraiki arautuko da.

Erabilera Sozio-kulturala.

Oinezkoentzako berdegunea Agirre etxearen inguruan.

Kalifikatu edo inbentariatutako kultur ondasun batean eta inguruan ezartzen diren erabilerak haren kalifikazio espedientean edo Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzeko espedientean zehaztutakoak izango dira; edonola ere, aipatu

erabilerek ondasuna behar bezala mantenduko dela bermatu beharko dute, aipatu Ondarearen Legeko 2. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabekoak.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Hiri Antolaketako Arau hauetan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.